

"HEINEKEN JAZZALDIKO III. KARTEL LEHIAKETA"KO OINARRIAK

Heineken España S.A.k, I.F.Z. A-28006013 eta helbide soziala Sevillan (Av. De Andalucía, nº 1, C.P. 4100) dituenak, lehiaketa hau jarriko du martxan, Heineken Jazzaldia sustatzeko xedez.

1. EZARPEN EREMUA

Sustapen-lehiaketa hau 2011ko otsailaren 9ean hasiko da, eta 2011ko martxoaren 14an amaituko.

Promozio-lehiaketa honek nazio-eremuko hedadura du, eta bertan parte har dezakete, doan eta hala nahi izanez gero, Espainian bizi eta 18 urte beteak dituztenek, sustapen-mekanika betetzen badute.

2. SUSTAPEN MEKANIKA

Heineken España S.A.k eta Heineken Jazzaldiak "HEINEKEN JAZZALDIKO III. KARTEL LEHIAKETA" sustapen-lehiaketa jartzen dute martxan, zeina www.heinekenjazzaldia.com webgunean, <http://especiales.heinekenjazzaldia.com> site berezitik parte hartuz egingo baita.

3. IZENA EMATEKO MEKANIKA

Gune berezi bat sortuko da www.heinekenjazzaldia.com web orrian, eta partaideek handik bidali ahal izango dituzte beren proposamenak.

Kartelak 2011ko otsailaren 9tik 2011ko martxoaren 2ra arte bidali ahal izango dira. Kartelak jasotzen diren unean argitaratuko dira.

Partaideek inprimaki bat bete behar dute, bertan e-posta, izen-deiturak eta telefonoa jarriz, eta beren proposamenak aurkeztuz; kartelak JPG formatuan aurkeztu behar dira, 68 x 98 cm-ko tamaina eta 72 ppp-ko bereizmena (1998 X 2778 pixel) izan behar dute, eta nahi adina kartel aurkeztu ahal izango dira.

Inprimakia izena eman izanaren bermetzat hartuko da, eta epaimahaiaren ebazpena ezagutu ondoren baizik ez da erabiliko lana identifikatzeko bide gisa. Epaimahaiak ez du izango irispiderik datu-basera.

Bestelako artxibo-formatu, pixel-kopuru edo tamainak dituzten irudi edo kartelak baztertu egingo dira besterik gabe.

Kartelean Heineken Jazzaldiaren logoak agertu behar du, bai eta parte hartzen duten erakunde eta instituzioen logoak ere; aurrerago zerrendatuko dira, eta honako web honetatik jaitsi ahal izango dira: <http://especiales.heinekenjazzaldia.com>

Kartelen batean ez badira logo guztiaK agertzen, deskalifikatu ahal izango da, baina logoren bat ez sartzeak berez ez dakar baztertzetik. Antolatzaileek erabakiko dute baztertu ala ez. Lehiaketara aurkeztutako diseinu edo kartelen bat baztertua izateko, ez da beharrezko izango egileari alde aurretik jakinaraztea lanak ez duela betetzen betebeharren bat (formatua, logotipoa, neurriak, bereizmena, tamaina, eta abar). Gainera, beste baldintza hauek ere bete beharko dira:

- Heineken NV-ren erantzukizun-arauak betetzea.
- Alkohola lege hartzeko adina baino gazteago diren ikus-entzuleei ez zuzentzea.
- Inola ere ez lotzea elkarrekin ibilgailuren bat gidatzea eta alkohola.
- Debekaturiko eremuak: erlijioa, sexua, politika, tabakoa, jokia, beste marka edo pertsona batzuen eskubideak haustea.
- Onarturiko diseinuak mundu osoan erabili ahal izango dira; beraz, irudiren batengatik ordaindu beharrik balego, irudi hori ez da erabiliko.
- Ilustratzaile edo argazkilari baten zerbitzuak erabiliz gero, bermatu bere lana mundu osoan erabiltzeko eskubidea lagatzen dizula.
- Ez erabili artxibo-irudirik, ezta royaltyrik ordaintzerik eskatuko ez balu ere. Sor itzazu zeure diseinuak.

Antolatzaileek egoki deritzeten zertarako guztietarako erabili ahal izango dute hautaturiko irudia, eta Heineken Jazzaldiak behar izango dituen formatu eta euskarri guztietan erreproduzitu, egokitu eta ezarri ahal izango dute, artistaren baimenik eskatu beharrik gabe.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar lege-oinarriak onartzea, eta hala Heineken España nola Heineken Jazzaldia edozein unetan jarri ahal izango dira harremanetan parte-hartzaileekin.

4. BOZKETA MEKANIKA

Irabazlea hautatzeko, <http://especiales.heinekenjazzaldia.com> webgunean jendearen boto gehien jasotako 10 hautagaiak aukeratuko dira aurrez.

Beste 10 kartel Heineken Españak hautatuko ditu, eta guztira 20 izango dira **2011ko martxoaren 11n**.

Lehiaketan botoa eman ahal izateko, formulario bat bete behar da norberaren datuekin, emaila eta izen-deiturak adieraziz. Baliozkotzat jo ondoren zenbatuko dira botoak. Erregistro guztiek jasoko dute kontu-berrespena (double opt-in), posta-

kontua benetakoa dela egiaztatzeko; eta, egiaztatu ondoren, botoa zenbatuko da. Ez da zenbatuko erabiltzaileak egiaztatu gabeko botorik.

10 kartelak hautatzeko bozketa-egunak **2011ko martxoaren 4tik 2011ko martxoaren 10era** artekoak izango dira.

Bozkatze guztiak <http://especiales.heinekenjazzaldia.com> webgunetik egingo dira, eta erabiltzaile bakoitzak boto bakar bat eman ahal izango du.

5. IRABAZLEA HAUTATZEA

Irabazlea hautatzeko, **20** kartel aukeratuko dira aurrez, aurkeztutako guztien artetik; boto-emaileek 10 kartel aukeratuko dituzte eta Heineken España S.A.-k eta Heineken Jazzaldiak beste 10 kartelak.

Aurrez aukeraturiko 20 kartelen artetik epaimahai batek "Heineken Jazzaldiko III. Kartel Lehiaketako" irabazlea hautatuko du **2011ko martxoaren 14an**.

Irabazlea <http://especiales.heinekenjazzaldia.com> webgunean jakinaraziko da, **2011ko martxoaren 18an**.

6. SARIAK

Kartel irabazlearentzako saria 1.200 €-koa da.

Irabazlea www.heinekenjazzaldia.com web orrian jakinaraziko da, **2010eko maiatzaren 28an**.

Bozkatuz parte hartzen duten erabiltzaile guztien artean, bi lagunentzako ostatura eta bi abonamendu/sarrera zozketatuko dira 46. Heineken Jazzaldiko kontzertuetara joateko; gehienez eta guztira 1.000,00 euro balio dutenak.

7. ZOZKETA EGITEKO ERA

Zozketa **martxoaren 21ean** egingo da, Notario aurrean, eskuz ateratzeko prozedura aleatorio baten bitartez, prozedura informatiko baten bitartez edo ordenagailu-zerrenda baten bitartez, non agertuko baitira partaidearen datuak.

Zozketan, notarioak zoriz izendatuko du, bere notario-fedepean, lehenik zenbaki 1 (bat), irabazle izango dena. Orobat, 2 (bi) zenbaki aterako dira, ordezeko izango direnak.

8. IRABAZLEA/RI JAKINARAZTEA

Irabazlea <http://especiales.heinekenjazzaldia.com> webean jakinaraziko da. Heineken España S.A. telefonoz jarriko da harremanetan bai hautaturiko kartelaren egilearekin eta bai Heineken Jazzaldirako egonaldi eta sarreren irabazlearekin.

9.- DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA DATUON BABESA

Sustapen honetan parte hartzen dutenek onartzen dute beren datu pertsonalak 15/1999 Lege Organikoan (abenduarien 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa) xedatutakoaren arabera tratatuak izatea, sustapen hau garatzeko eta beste sustapen batzuen eta Heineken España S.A.k merkaturaturiko produktuen berri emateko.

Hala, eskatutako datu pertsonalak Heineken España S.A.ren fitxategi automatizatu batean sartuko dira, aurreko paragrafoan adierazitako xedez; datuok ez emanaz gero, ezingo da parte hartu lehiaketan. Partaideak sarbide-, aurkakotasun-, zuzenketa- edo baliogabetze-eskubidea erabili ahal izango du, eskaria idatzi eta Heineken España S.A.ra bidaliz, helbide honetara: calle Monasterio de las Huelgas, 9-13, Montecarmelo, 28049 Madrid, erreferentzia hau jarrita: "III CONCURSO DE CARTELES 46 HEINEKEN JAZZALDIA".

Sustapena amaitu eta gero, Heineken España S.A.k partaideek emandako datuak gordeko ditu, Heineken España S.A.ren beste sustapen eta produktu batzuen berri emateko xedez. Hala, eta uztailaren 11ko 34/2002 informazio gizartearen eta merkataritza elektronikoaren zerbitzuen legean xedatutakoa betez, partaideek beren baimena ematen diote Heineken España S.A.ri aurrerantzean bere sustapen edo produktuei buruzko merkataritza-komunikazioak bidal diezazkien. Hartzaileak noiznahi baliogabetu ahal izango du merkatu-komunikazioak jasotzeko emandako baimena; aski izango du bere nahia jakinaraztea bidaltzaileari, Heineken España S.A.ra zuzenduz, oinarri honetan aurrez adierazitako helbidera.

Sustapenaren mekanikak eskatzen du emandako datuak egiazkoak eta osoak izatea, eta eguneratuak edukitzea partaideen lankidetzari esker. Datu pertsonalak faltsuak, osatu gabeak edo eguneratu gabeak balira, Heineken España S.A. lokabetuta geratuko da kasu jakin horiei, sustapenaren xede onari eta aurrekoarekin zerikusia duen edozein ondoriori dagokienez, eta azken buruan sustapenaren onuradunik ez adieraztera ere irits daiteke.

Lehiatzaileek baimena ematen diote Heineken España S.A.ri haien izenak eta irudiak publizitatean erabil ditzan, irabazle atera eta saria onartzen badute.

10.- ERRESERBAK ETA MUGAK

Ezin izango dute parte hartu sustapenean eta, beraz, saririk jaso, honako pertsona hauek:

1. Heineken España S.A. merkataritza-erakundeko langileak eta haien lehen mailako odolkideak;
2. Heineken produktuen banaketa-enpresetako edo sustapenarekin zerikusia duten publizitate-agentzietako langileak.

Heineken España S.A.k eskubidea du aipaturiko sarien ordeaz antzeko ezaugarriak eta balioa dituzten beste batzuk emateko.

Emandako sariak ezingo dira trukatu, aldatu edo konpentsatu irabazleen eskariz.

Heineken España S.A.k ez du bere gain hartzen saria irabazitako bezeroak saria gaizki erabiltzearen erantzukizuna. Orobat, Heineken España S.A.k ez du bere gain hartzen sustapen honen onuradunen batek bertan eskaintzen diren artikulu eta bidaien kariaz kalteak izatearen erantzukizuna.

Heineken España S.A.k ez du bere gain hartzen Internet dela-eta —lehiaketan erabiltzen diren webguneetan, telefonoan, kablean edo software nahiz hardware-ko beste edozein saretan; edo sustapen-kodeak oker sartu edota aldatzeagatik— izan litezkeen matxura edota akatsen erantzukizuna. Heineken España S.A.k ez du bere gain hartzen alde horretatik legokeen erantzukizunik.

Ez Heineken España S.A. ez haren enplegatu edo agenteak har daitezke Lehiaketa honetatik eratorritako ekintzen arduraduntzat.

Heineken España S.A.k ez du bere gain hartzen Lehiaketa honetan edo besteren batean emandako sariak direla-eta gerta daitezkeen galera edo kalteen erantzukizuna.

Heineken España S.A.k eskubidea du sustapen hau bertan behera utzi, aldatu, hedatu edo baliogabetzeko.

Heineken España S.A.k edari alkoholodunak neurritz eta erantzukizunez kontsumitzea gomendatzen du, eta gogoratzen ezen, indarrean den legeriaren arabera, erabat debekatuta dagoela 18 urtez beherako pertsoneri edari alkoholodunak saltzea.

Ondorioz, Heineken España S.A.k ez du bere gain hartzen garagardoa arduragabe kontsumitzearen eta adingabeei garagardoa saltzearen ondorioz gerta litezkeen kalteen erantzukizuna.

Sariak besterenezinak dira. Saridunen batek saria onartzen ez badu, ezingo dio beste inori eman.

Sustapen honetatik edo bertako zozketaren emaitzetatik ezin da eskubiderik eratorri.

Lehiatzaileek baimena ematen diote HEINEKEN ESPAÑA S.A.ri eta Heineken Jazzaldiari beren izenak eta irudiak publizitatean erabiltzeko, irabazle atera eta saria onartuko balute.

Agiri honen bidez, sustapenean parte hartzen duten lehiatzaileek Heineken España S.A.ri uzten dizkiote "46 Heineken Jazzaldia III. Kartel Lehiaketa"ko webgunean jarritako diseinuaren ondare-eskubide guztiak, bai eta haien jabetza intelektual eta industrialak ere, hark erabili, inprimatu, erregistratu, bikoiztu eta oraingo edo aurreragoko beste edozein bitartekoren bidez erreproduzitu ahal ditzan, legearen eta ohitura onen arabera, eta ez partaideek ez haien ondorengoek galdegin ahal izango diote ezer kontzeptu horiengatik edo antzeko beste batzuegatik Heineken España S.A.ri.

11.- LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIO-MENDEKASUNA

Heineken España S.A.ren sustapenek Espainian indarrean den legeriari jarraitzen diote.

Oinarri hauek interpretatzean eta ezartzean sor litekeen edozein eztabaidatarako, hala Heineken España S.A nola sustapen honetan parte hartzen duten partaide guztiak men egiten diote espresuki Sevillako Auzitegi eta Epaimahaien Jurisdikzioari, beren foruari uko eginez, halakorik balitz.

Heineken España S.A.k akzio judizialei ekiteko eskubidea du sustapenaren manipulazio edo faltsutzetat jo litekeen edozer egiten duten pertsonen kontra.

12.- INFORMAZIO FISKALA

Saria jasotzeko, 1991ko abenduaren 20eko 439/2007 Errege Dekretuz onarturiko Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren Araudi indarrean denak eta horrekin bat datozen xedapenek diotena ezarriko da.

Heineken España S.A.k EGZren atxikipena egingo du Sarian, eta Zerga Agentzian ordainduko, 439/2007 Errege Dekretuz onartutako errentaren gaineko zergaren araudi indarrean denak zehazten duen eran.

Heineken España S.A.k atxikipenari dagokion egiaztagiria jaulkiko du, eta posta sinistamendatuz helaraziko dio sarituari.

Joko, lehiaketa, zozketa edo konbinazio aleatorioetan parte hartzearen ondorioz ematen diren sarien bidez lortutako irabaziak ondare-elementuen transmisioak sortu gabeko ondare-irabazitzat jotzen dira, eta, beraz, oinarri zergagarriaren alderdi orokorrean eransten dira; dagokien zerga eskalan ordaintzen da.

Heineken España S.A.ri ezingo zaio erreklamatu ondare-irabazi horren zergari dagokion diru-kopurua, sariaren zenbatekoaren eta oinarri zergagarri orokorrean batzen diren beste errenta batzuen (lan, jarduera ekonomiko, errenta-esleipen eta abarren) zenbatekoaren arabera baita.

13.- OINARRIAK GORDAILUTZEA ETA ONARTZEA

Oinarri hauek Manuel Roas García-Creus Andaluziako Elkargo Ofizial Goreneko Notario jaunaren aurrean gordailutu dira, eta www.notariado.org (ABACO artxiboa) webgunean daude eskuragai kontsumitzaileek eskuratu nahi izanez gero.

Parte-hartzeak berez dakar oinarriok oso-osorik onartzea eta, beraz, parte-hartzaileak onartzen ez dituela adierazten badu, kanporatuta geratuko da eta, ondorioz, Heineken España S.A.k ez du bete beharko parte-hartzaile horrekin hartutako eginbeharririk.